

MUNDUA IKUSI

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ANA: Esan zidanen -ez dinat inoiz kontatu?-, esan zidanen: oso polita haiz, oso atsegina haiz, oso ondo pasatzen dinagu ohean, baina... ez gaizki hartu, baina... Esan zinan: Ez dinat gezurrik esan nahi: Ez ditinat eskuak lotuta izan nahi, urrunago joan nahi dinat, mundua ezagutu nahi dinat –“mundua”!-, beste batzuekin egon nahi dinat (*Gogoratzuz harrিতuta*). Hori esan zidanen. “Ederra” esaten zidananean, “xarmagarria”, tipokak “neskapuska” esan nahi zinan, “berotzen naun”, baina, zirudinanez: ez nahikoa. Oso ondo. Ba, ezer ez, hor gelditu nindunan. Honen alde ona -karma-: gurutzatu zitzaionan lehena -lehenengoa-, pam! aldarera, hau dun, ezkondua, bi seme-alaba. Hori dun. Lehena. Larunbatean kontatu zidanen. Nola izan zunan? Ba, ezer ez, modurik ergelenean. Ni hortik nengonan erosketak egiten, merkataritza-zentroan, larunbatean, eta, aizan, nor aurkitzen dinat? Esploratzailea. Ez ninan ezagutu, zin egiten dinat. Gutxiago... Gehiago... Ni denda batetik ateratzen nengonan eta bera eserlekuetan eserita zegonan, senarrak aparkatzeko jartzen dituzten horiek. Poltsaz beteta zegonan, eta aspertu aurpegi bat... Ba hori, ikusten nain eta aurpegia argitzen zaion, eta esaten zidan: “Kaixo, Ana, zer moduz!”, musuak, “Zer moduz! Ondo ikusten haut!”. Tipoa dendara begira zegonan, zeharka -emaztea barruan zeukanan, erosten-. Eta ezer ez, hitz egin pixka bat, eta hori, eta bazoan eta hurbildu egiten zaidan, eta esan zidan: “Zer moduz arratsalde batean elkar ikusten badinagu, garagardo bat hartu, eta lasaiago kontatzen didan, nahi badun hire pisura joaten gaitun eta...” Eta esaten zionat: “Eta mundua ikusten diagu”. Eta honela zion: “Bai!!” “Begira Javi” esan nionan. “Nik orain esan diezaaket ederra haizela, zoragarria haizela, ohean oso ondo pasatzen genituala eta, tira, baietz, puta-madre pasatuko diagula nire etxean denbora batez mundua ikusten”... baina... Ezin diat. Ezin diat, arratsaldeak, Tinderren duela bi hilabete ezagutu nian sekulako tipo batekin pasatzen ditiadalako. Ez duk nire mutil-laguna, tipo bat baino ez duk. Eta ezin diat ez ziadalako gezurrik esan nahi. Gizen ikusten haut, zahartuta ikusten haut eta, egia esan, ez diagu inoiz ondo pasatu ohean. Nik behintzat, ez. (*Elkarrizketa amaierako irribarrea. ANA zerbaitez jabetzen da*) Deitzen ari haute. Hire emaztea duk?

OHARRAK: Bakarrizketa honek lagunarteko hizketa erabiltzen du. Hori da bere indarra. Horregatik horrela ikusi behar da: lagunartekoa. Jarduteko modu

Ele txera
munduarek zabalduz



MUNDUA IKUSI

Marc Egea

Eusk: Ele txera

natural, fresko eta gaurkoa erakutsi nahi duten aktoreentzat da bereziki egokia.

*Mendekua da, zalantzarik gabe. Mendeku baten kontaketa. **ANAK** gozatu egiten du, lagunari pasartea kontatuz. Eta dastatzen du. Baliteke pixka bat apaintzen aritzea.*

ALDAKETAK: *Bi aldaketa sotil. Lehena: ez dadila egia izan **ANA** Tinderren tipo batekin dagoela. **ANA** bakarrik egon daiteke, baina ez du, erabat, bertan behera utzi zuen ergelarekin geratu nahi, eta ez du nahi ergel horrek, ordutik bakarrik dagoela pentsatzerik. Aldaketa horrek ez dakar aldaketa handirik, baina ñabardura bat eransten du. Bigarrena: **ANAK** ez dezala Javi lodi eta zaharra ikusi, kontrakoa baizik. Baina harrotasunagatik botatzen du hori. Ñabardura hori, agian, aurreko aldaketarena baino nabarmenagoa da. Nahi izanez gero, bi aldaketak batu daitezke. Orduan, monologoak erregistroak irabaz ditzake. Baina beharrezkoa bada bakarrik. Jarduketa natural, bat-batekoa, besterik gabekoa behar bada, nahikoa da lehenengo irakurketa.*

Ele txera
Mundua ikusi

